

ESKALE TXIKIA

Txomintxo mutil koxkorra zan, inguru-minguruko zidor ta bideak ezin obeto ekizana. Txubil eskale zarrak, heragaz erabilli eban luzaro, ara ta ona, eskean: baiña eskatzen besterik ez eutsan erakutsi: eskatu ta eskatu beti. Mutikoak aita deitzen eutsan arren, ez ekian aita ehanik, ezta bere sendiko zanik be. Alan eta guzti be, beste olakorik ez eban eza-gutu-ta, pozarren ebillen aren ondoan.

Erriren batera eltzen ziranean, Txomintxo, kale zear limosnatan ibilli ondoren, errementari, arotz edo burdigillearenean egon oi zan, naiko luzaro: arein antzeke ogibide bat pozik ikasiko eukean berak be. Zelako atsegiñez mailukatu burdin gorria junguda gaitzen, edo erredezak eta burdiak egin! Txubil'i itanduten eutsan noizik-bein, zergaitik ezin eikean herak ogibide bat ikasi: baiña zurrak beti erantzun bera:

—Egunero ez ete dok jaten? Zertarako lan egin?

Eta mutikoak agin arteko marmar-jardun au ezun ai eutsan:

—Gaurko mutikoak, iñoiz be, ez dagoz pozik.

Egun batean, jente txiroa bizi zan erri bat, batetik bestera, ibilli ostean, zentim batzuk besterik ez eban bato Txomintxok. Beti lez, errementariarean sartu zan, zelan lan egiten eban ikusteko asmuz; eta errementariak, aldarte onekoa zan-eta, itandu eutsan:

—Ian egingo eunkek, txiki!

—Bai, jauna! —erantzun mutikoak.

—Ator ona, Tresnak itxiko eutsan, eta curak erabilten erakutsi.

Txomintxok, poz-pozik, lanerri ekin eutsan; orduak eta orduak, lanerri barik joan yakozan. Txubil, ategia, mutikoa agertzen ez yakolaka, aren bille joan zan azkenik. Aurkitu ebanean, esan eutsan:

—Zer dagik or? Ator bereala.

Txomintxok, agur egin eutsan errementariari: bidez joiazala, zarrak asarre:

—Nik egindako mesedeak orre ordaintzen daustazak? Eure legez dokan lez, eixez etxe eskale ibilli beartean, alperrik galdu daroak den pora.

—Erri guztian ibilli naz, aita —diñotso Txomintxok—, baiña auxe besterik ez daustie emon.

—Atxakiak atxiki, mutil! Arrerrian joango az harriro, ta goizean aña ha-dakarstak, gogoratuko az nerekin.

Ordu batzuk geroago, gure eskale txikia berrero ibilli zan etxerik etxerri guztian: baiña ez eutsan oraingoan be aduak lagundu. Etxerik etxe ko itxita idoro ebazan, lan-ordua zelako, eta ta esatekorik ez eban bato. Augaitik etzan azartzen, ez errementariaren lantegian sartzen, ez eskale zarraren etxera bihurtzen. Zer egin! Bide ertzean jarri zan, eta, ezin beartean, negarrari emon. Ba-ekian ez zan errudun, baiña zigorraren bilatu zan. Ogibide bat jakin-ezak eta teta labe baten bizi-ezak, zelako maita emotsan! Zoragarri benetan, erriko beste mutikoen antzeru bizi al jantzia! Bertatik eskutxo guri baten

guzti gozoa oar eban bizkar gaitzen, abots ezti batek galdetzen eutsan.

—Etsan, umetxo; zer jazoten yatan?

Txomintxok, burua jasorik, bere mutiko neskato bat ikusi eban. Errurri ekin begira: aren begiak, urdiak ziran oso: ezin ederragoak iruditu yakozan, batez be negarrez egoan ez-eragun baterenganako maitasunez beteak ziralako. Txit dotore jantzia egoan, eta ortik konturatu zan beingoan etzala errikoa, atzerri-tarra baiña. Txomintxori, gizontzat eukan bere burua-ta, ez yakon ondo jausi arek negarrez ikustea. Eta erantzun eban:

—Ezer bere ez.

Neskatoaren hegiak maitekorrago biurtu ziran oraindik, eta lengo abots ezti berberak daragoio:

—Bai, mutil, zeezer ba-dozu. Ezerrezarren iñok ez dagi negarrrik.

Mate eban biotz bat aurkitu ebalata, maitasuna iñoiz ezagutu ez eban Txomintxok negarrari ekin eutsan barrion barri, zotin aundika. Ta orrelaxe, intzirika, azaldu eutsan zein zan bere negarzio ta susterra.

Amaitzean, neskatoak:

—Erdi neugaz.

Txomintxo, astetsu, aren jarrai. Biotz ongile aren alboan, bai pozkor! Daratzen egon yakon zain, neskatoa etxe barruratu zan bitartean. Itsu-lapiko bategaz biurtu zan. Txomintxo'ran aurrean apurtu eban herau, arri bategaz jota; txanpon-pillo itzala barreia zan zelaian. Eskale txikia, sor ta lor, etzan azartzen arek batzen: baiña neskatoak, arrenga, oi:

—Lagundu egidazu hatzen. Zeuretzat dira.

Eskaleak, egundo ez bait-eban ainbeste diru batean ikusi, itaun:

—Danak?

—Bai, dan-danak.

Txomintxo'ri ez yakon, urrean, eratsu ta jasekoa iruditu ainbeste diru artzea, ta are geiago itaun oraindiñok:

—Eta zu, ezer barik geratuko zara?

—Eta zer! Danau zan gozotarako, eta ni ondo nago gozoki barik be.

Txomintxok, agur egiterakoan, neskatoari agertu gura izan eutsan, zelan edo alan, mosutxe bategaz be bai, zenbateraiño maite eban. Baiña ain garbi ta txukum joian a, ta bera ain zikin! Etzan azartu. Berba bat ebagi eban bakarrrik bere ezipanak, biotz erdi-erdian jaioa:

—Eskerrik asko. Eta, neskatoak ez entzuteko moduan, ixilka, marmar: Zeozelan ordaindu gura neuskio, ba, egin daustan mesedea.

Txubil'ek, Txomintxo'ran eskutik diru-mordea artuta koan, diño:

—Ikusten dok, alper-ontzi? Denpora alperrik galdu ez ba'endu, zenbat batuko euan gaur goizean be!

Egia azaldu eutsan umeak, baiña eskaleak sinistu nai ez.

—Ez, ez! Erri onetan diru asko yagok, eta bertan geratuko gaituk beste egun batean be.

Biaramon goizez, errirako hidea artu eban Txomintxok; eta an ikusi eban aurreko eguneko neskatoa, bere nebatxo urte gitxikoagaz olgatan. Osin batetik ura atera ta harriro bota, auxe zan arein jolasa. Eskale txikia urreratu yakon neskatoari, eskerrek emotekotan; baiña umetxo atan, ura artzeko makurtu zan beste txikia, ta *plaut!* uretara jausi. Ezin azkarrago, murgildu zan osineko ure-